



Aurreko alean korporazio pribatu handien inguruko kezkak hor darrai, baina hauek [eraisteko momentua](#) iritsi dela diotenen ahotsak entzuten hasi dira. Internet banatuaren ideiatik aldendu ginen, baina bueltan etorriko da; [etorri behar du](#).

Facebook-ek inoizko arazorik handienak pasatzen jarraitzen du, bere erabiltzaileen [datu ihesaren ondoren](#), [gehiegizko datu jasoketa](#), [inteligentzia artifizialearen publizitatea bideratzeko erabiltzea](#), [sarekoak ez diren erabiltzaileak ere jarraitzea](#) eta orain [aurpegi errekonozimenduan sakontzeko baimen eske etortzeak](#) ez du ez hanka ez bururik. Beno bai, enpresa hauek gure datuak jasotzen eta ustiatzen jarraitu nahi dutela erakusten du soilik.

Eskandalu berri artean, — [Youtube-k adin txikikoen datu bilketari buruzkoak](#) edota [Grindr harreman pertsonaletarako sareak datu pribatuak banatu izana](#) adibidez -. Enpresa askok beren erabilpen baldintzak moldatzen ari dira, behintzat European. Legislazio berriekin, gardentasun printzipioak aplikatu nahi omen dituzte, jakinik ez dutela [benetako kontrol bat suposatuko](#).

Estatuek ere kontrol neurriak indartzen ari dira. AEBetan sarrera bisatu bat eskatzen dutenei, [dituzten \(edo izan dituzten\) sareen informazioa](#) eskatuko diete. [Teknologiaren inguruko asmakuntza askoren erabilera militarra ere beldurtzekoa da](#). Australian, estatistika institutuak, [telefono konpainien datuak erabili ditu, beren hiritarrak, jakinaren gainean egon gabe zelatatzen](#) eta egiten dutenari buruzko informazioa izateko; guztien interesekoa izan daiteke, baina orduan zergatik ezkutuan egin? Gure datuak babesteko [proposamen erradikalagoen](#) ordua iritsi dela dirudi.

Ingurugiroari dagokionez asko hitz egiten da eta orain arte gutxi batzuen alternatiba zirudien Agroekologia adibidez, diskurtsoetan zabaltzen doa [espero ez zen tokietan ere](#). Energiaren inguruan ere, gero eta argiago dago erregai fosilekin bukatu behar dugula. Batzuek soluzio teknologikoek konponduko dutela uste badute, [hori ezinezkoa da!](#) Danimarkak bide interesgarriagoa irudikatzen du; [2050 urterako erregai fosilekin amaitu nahi dute han](#). Tartean emisioak gutxitzeko bideen artean, [garraio publikoa doan jartzea](#) ere badago Europako zenbait hirietako agendan ere.

Garraioari buruz ari garela, berrikuntza alor nagusietako bat berau da. [3D inprimagailu berezietan egin daitezkeen kotxeak](#) agertzen hasi dira. Errepideetan ere, berrikuntzak badira, [kotxeak martxan izanik ere kargatzeko esperimenduak](#) adibidez.

Aplikazioen munduan ere, Cabify bezalakoek, kotxez gain, [motoak ere kontuan hartzen hasi dira](#) beraien negozioetan. Bitartean, azken kilometroetako garraioan gertatzen ari da aldaketa handiena eta arrakalak irekitzen ari dira, erregulazioak iritsi baino lehen. [Deliveroo galera izugarriekin jarraitzen du](#), modeloaren akatsak argi erakutsiz. Glovok, gertuko bidalketak egiteko beste enpresa batek, [farmazietako medikamentuak etxetara eramateagatik salaketak](#) jaso ditu bitartean. Amazonek, berriz, [beren bezeroen kotxeak maileterean banatu nahi ditu paketeak](#).

Dena mugitzen ari den beste alor bat turismoa da. Turistifikazio eta masifikazioaren aurrean, hiri batzuk antolatzen ari dira [SET sarean](#). Teknologiek zein paper joka dezaketen ez dago argi, batzuek [turismo sostengarri bati lagundu diezaioketela](#) uste dute, baina aldi berean [AirBnBren inguruan ere turismo sostengarriaren inguruko diskurtsoak](#) entzuten dira. Azken hauek, kontrako zentzuan jokatzeko dutela frogatu dago eta [ez da urrun joan behar hortaz jabetzeko](#). [Parisko udalak etxebizitzak alokairu turistiko bezala ez identifikatzeagatik ere salatu du enpresa](#) eta Palmakoak [zuzenean debekatu ditu](#) era honetako alokairuak.

Etxebizitzaren prezioan ere eragiten ari da turismoaren eta alokairuaren gaia. Alokairuaren burbuila batean bizi garela dirudi, baina pisuak [jabe gutxi batzuen esku gelditzen ari direla dirudi](#), prezioak gora egiten duten bitartean. Aldi berean soluzioak, mugatuak badira ere bilatzen hasi dira, [edifizio](#)



[batzuk etxebizitzetarako okupatu](#) edo [etxebizitza eta oinarrizko zerbitzuak zuzenean doan ematea aztertzen hasi dira](#). Ikea [hiri masifikatu](#)etarako eta “[diruzorro argaletara](#)” egokitzen ari dela [argitzeak](#), ez du etorkizun oparorik irudikatzeko aukera gehiegirik ematen.

Ekonomiaren alorrean eta teknologiarik lotuta badirudi gauza interesgarri berriak ere hasi direla agertzen. [Teknologiaren olatuan nabigatzen ikasteko](#), [Interneten izaerara egokitutako ekonomia kooperatibo bat sustatu nahi dutenak](#) eta [ezkerretik ere erronka-arrisku binomioan ere ideia berriak](#). Arlo ekonomikotik ere, [burujabetza teknologikoaren](#) ideia bidean, [azelerazionismoa](#) eta [kooperatibismoak](#) paper garrantzitsu bat jokatu behar dutela ere irudika daiteke.

Etorkizuna etortzen da, baina etorri baino, ekartzeko, [pedagogia futuristak](#) eta [etorkizuna sortzeko mekanismoak](#) behar ditugu orain. Enpresa handiei [gure hirietako ekosistemak oparitu](#) edo gure [Silicon Valley propioaren ametsak](#) alboratu eta gureak eraikitzea tokatzen zaigu. [Zientzia fikzioak](#), [gugan gero eta eragin gehiago](#) izateak alde positiboa dauka, behintzat [AnsibleFest](#) moduko ekimenak sortzen baditu inguruan.

**Iturri originala:** <http://www.azkuefundazioarenegunkaria.eus/teknologien-faroa-3/>

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email this to a friend \(Opens in new window\)](#)